

ANTZERKIA. Eneko Olasagastik zuzendu eta dramatizatu du Korrika-AEK I. Beka deialdia jaso duen antzerki lana



GARI GARAIALDE / ARGAZKI PRESS

AGIRRE'TAR NIKOLA 'METXA'. Jose Ramon Soroizek jokatu du antzerki laneko protagonista nagusiaren rola. Eneko Olasagastik argi zuen hark gorpuztuko zuela ongien Izagirik asmaturiko pertsonaia.

Metxa piztu da

Koldo Izagirreren pertsonaia literarioan oinarrituriko antzerki lana otsailaren 21ean estreinatuko du Tentazioak, Donostian

Ainhoa Oñartzabal | URNIETA

«Agirretarren herria ez duzu mapetan aurkituko», dio Ramon Agirrek. «Agirretarren herria ez dago inon», azaldu du Aitzpea Goenagak. «Agirretarren herria edonon dago», gehitu du Xabier Sarasolak. «Agirretartasuna ez baitu sorlekuak ematen, baizik eta erorikoen minak», bukatu du Jose Cruz Gurrutxagak Metxa antzerki la-

naren lehen agerraldia. Aipatu obrako pertsonaiak dira laurak, eta euren hitzei, Ainara Gurrutxaga eta Jose Ramon Soroiz aktoreenak jarraitzen diete, guztiak agirretarrei buruzko azalpenak. Ondoko hau, adibidez: «Eta jendeak nahiago duenez minik ez hartu, gero eta bakanagoak dira agirretar petoak». Eurak dira hain zuzen, gelditzen diren bakanak.

Koldo Izagirik 1991n argita-

ratu zuen *Metxa esaten dioten agirretar baten ibili herrenak* (Elkar, Branka saila) liburuko agirretarrak dira. Euskaldunon munduaren alegorian bizi diren herritarrak. Orain, Eneko Olasagasti antzerki zuzendariaren eskutik, liburutik antzokira egin dute jauzi.

Korrika-AEK I. Beka deialdia irabazi zuelako gauzatu du antzerki lana Olasagasti gidari duen Tentazioa ekoiztetxeak:

AEK-k joan den uztailan eman zizkion 9.000 euroek ahalbidetu dute *Metxa* antzerki lana eta haren estreinaldia. Otsailaren 21ean izango da, Donostiako Antzoki Zaharrean. Horren ondotik eta Korrika Kulturalaren baitan, gutxienez, beste 11 herritan eskainiko dituzte saioak.

Testuari fidel

Eneko Olasagastik berak egokitu du antzerkirako Koldo Izagirreren liburua: «Hainbat narrazio elkarrizketa bilakatu ditut», argitu du antzerki zuzendariak entseguren atsedendian, Urnietako Sarobe aretoan. Urduri dabil, besteak beste, lehen aldia baitute eszenografiarekin entseatzen dutela.

Gertaerak elkarrizketa, eta azalpenak bakarriketa bihurtu ditu Olasagastik. Batik bat, agirretarrek Metxaz egiten dituzten azalpenak bihurtu ditu bakarriketa. Nikola Agirre *Metxa* (Jose Ramon Soroiz) baita bai liburuaren bai antzerki lanaren protagonista nagusia. Bera da agirretarrik agirretarrena, beste agirretarrek sesioan ibiltzen den agure egoskor maitagarria. Kezkaturik bizi da herriarekin, iraganarekin, eta batez ere, geroarekin. Horregatik, bere biloba Beñati (Xabier Sarasola) agirretarren erorikoak kontatzen dizkio, 36ko gerra adibidez. Ahaztu ez daitezen kontatzen dizkio, alferrikako minak izan ez daitezen. Hainbat agiriren eta trasteren gordeleku den Gela Urdinean dute toki Beñatekin dituen solasaldiek. Elkarriketa baino gehiago, bakarriketa dira solasaldi horiek. Metxa beti bere buruarekin ari baita hizketan.

Korrikaren beka deialdia antzerki lanaren ideia aurkeztu aurretik, Koldo Izagirrereganajo zuen Olasagastik. Eszenografiaren eta dramaturgiaren nondik norakoak azaldu zizkion. «Une batean zalantza izan zuen, baina azkenean eman zion balekoa». Beste zalantza honakoa izan zen: *Metxa esaten dioten agirretar baten ibili herrenak* liburuaren berrargitalpenean (Elkar, 2002) argitaratu zuen azken ipuina sartu edo ez. «Ez sartzea erabaki zuen».

Jatorrizko testuari eman dio garrantzia Olasagastik, osorik errespetatuz berori. «Izan ere, nahiz eta lehendabiziko irakurketa zaila egin, gero belarrirako gozamen bat da Koldoren idazkera». Ahozkotasunagatik, batik bat.

Antzerkigile eta zuzendariak liburuaren kontakizunari jarraitu diolako, Ilunpe Orokorren ekintza, Iparlandan ezkutuan bizi den ilobaren pasadizoa, Moriko txakurraren eta kanpaiaren istorioa, Ikastolako bi-

lera... hango pasarte gehienak taularatuko dituzte Tentazioa taldekoek. Gela Urdinetik landa, agirretarren herriko espazio publikoan jazoko dira gertaera horiek. Argi jokoekin mugatuko dituzte espazioak.

«Obrak oso lotura finak dauka. Ematen du hamalau ipuin direla, baina ez dira hamalau ipuin; loturak daude». Olasagastiren ustez liburuan nahiz antzerki obran badago autorearen ahotsa: «Eta ahots hori Metxaren ahotsarekin nahasten da. Ni saiatu naiz ahots hori beste agirretarrek ere har dezaten lortzen». Azken eszenan esate baterako, poliziaren galdetetan, agirretarrak izango dira Metxaren kontzientzia. Ahots hori erabili du Olasagastik obra lotzeko. Hari horri heldu eta sendotu egin du antzerki lanean.

Euskaldunon gaineko ikuspuntu heterodoxoa

«Obra umoretsu hasten da, baina gero, beste terreno batzuetan sartzen da», egin du oharra Olasagastik. Hala ere, ironia

KARAKTERIZAZIOA

Sudur handiak, belarri handiak eta herrenak

Herrenak. Herrenak dira agirretar guztiak. Herrenka ibiliko dira agertokian Metxa eta beste agirretarrak gorpuzten dituzten aktoreak. «Agirretartasuna gauza fisikoa baita; erorikoen minak ematen du agirretartasuna. Printzipioz, zeren eta gero erakusten da gauza gehiago ere badirela. Alde horretatik, oso obra aberatsa da», arrazoitzen du Eneko Olasagastik pertsonaiek herrenka egitea. Antzerki zuzendariak proposatu zizkion Koldo Izagirreri fisikoak ez ziren beste eroriko batzuk jartzea antzerki lanean agertuko ziren pertsonaiei. «Baina Koldok esan zidan ezetz, erorikoek fisikoak izan behar zutela zioen berak».

Horregatik, aktoreen itxura fisikoa asko zaindu dute *Metxa*-n. Horrexegatik jantziko dituzte aktoreek ordeko sudurrak eta belarriak. Horrekin guztiarekin, hasieran itxura arraroa ematea lortu nahi dute, «ia-ia irreal». «Obrak aurrera egin ahal, orde, espero dut ikuslea horrekin ahaztu egingo dela, eta beste gauza batzuk ikusten hasiko dela», dio Olasagastik.